

Euskaldunak eta ardoa

Deia, 1977-08-23.

Asko ez dela Suizan Ardoaren Nazioarteko Batzarra bildu da: 29 nazioetako 350 aditu edo esperto izan dira partaide.

Hartu zen erabakia: Ardo gehiago saldu behar dela.

Munduan zehar kanpaina hau hastekoa bada, gure herrian ere egin beharko dute ahalegin hori, eta, egitan, nahiko eta gehiegi ere konsomatzen dugu guk hemen ardoa.

Gure kalte handirako.

Ez da bakarrik osasun fisikoa, honentzat kalte handiak ekartzen badizkigu ere, zirrosis eta abar; baita sendagaitz eta kalte handiko diren beste burukoentzat, mentalentzat, ere.

Goraka dijoa kaltea, gainera, eta emakume artean bereziki.

Batzar nagusi hontan esan denez, mahaztiak azken urte hontan %2,5 hasi egin dira, 10 miloi hektarea lur estali arte; iaz, 880 miloi kilo mahatz jaso ziren, erdia baino gehiago Europan; hoietatik, %83 ardoa egiteko; ardoa, gero eta gehiago edaten da, eta joan den urtean 321 miloi hektolitro.

Hoiek dira batzar hontan eman diren berri onak.

Txarrak? Ba, ez dela egiten den ardo guzia edaten, eta 30 miloi hektolitro salgai geratzen direla oraindik.

Ez al dituzte denak honera ekarriko!

Suizan esan zenez, Ipar Ameriketan bakarrik ari da ardoaren kontsumoa hasten.

Hoiek ez dira Euskalherriatik pasa!

Gaur Larramendi-ren *Corografia* beste zerbaiterako kontsultatzen ari nintzela ikusi dut honi ardoak sor arazi zion kezka. Aipagarri iruditu zait. Larramendik ez du ardoak egiten dituen berezko kalteak salatzen, baina sagardoari egiten dizkion izugarriak bai. Ordurako, 1754-an, bost etxetik bostera tabernak jartzen hasiak ziran, eta sagardotegiak beherakada handian abiatuak; sagastiak berak ere galera handian, noski.

Eta ez zuen hau sagardoa maiteago zuelako salatzen, ekonomia zuen kontuan.

Pixka bat gehiegituko zuen, baina garai hartako Bizkai-Gipuzkoako burdinak kanpora salduta ematen zuen diruak baino gehiago omen ziran kanpotik sartzen zen ardoa erostea kostatzen zirenak.

Orduko ardoak, beraz, Bizkai-Gipuzkoako ekonomi osoa jartzen zuen kolokan, eta buruz-behera ere!

Egia da ardo hori gehienbat nafar-arabarra zela; baina honek ez digu hemen eta gaur beharrezko dugun arrazoi-bide hau kenduko.

Orain arte soin eta buruarentzat kaltegarri bezala aitortu digunei erantsi genezake Larramendik orain dela berrehun eta hogeituro urte salatzen zuena: Gure herriko haziendarako eta herritar bakoitzaren poltxikurako hontatik datorren kalte handia.

Eta hala ere, izugarriena (begira Santageda, Bermeo, Zamudio, Zaldibar, Billaba eta Gasteizera, eta mugaz haruzkoren bat ere izango dugu) gure herriaren osasunari dagokiona.

Esaera zahar batek adierazten zuen zerbait: "Ero guziak ez daude Zaragozan".